


Antso V.a Huescako guduan hil zen
1094. urtean.

Antso V.a Huescako guduan hil zen
1094an.



Urtea, zenbaki kardinalaz zein ordinalaz adieraz daiteke, baina, ordinalaz idatziz gero, *urte* hitza erabiltzea komeni da.

Oharra: ikus *Zenbakiak (I)* eta *Zenbakiak (II)* aholkuak, EHULKUren aholku guztiak fitxategian.

- 2004ko maiatzaren 14an, prentsaren aurrean agertu ziren.
- 2004. urteko maiatzaren 14an, prentsaren aurrean agertu ziren.
- ✿ *2004.eko maiatzaren 14an, prentsaren aurrean agertu ziren.

● Hamarkada (hamarraldia)

Zenbaki kardinalak erabili behar dira
hamarkada hitzarekin.

- Dirutza zen 25 pezeta 60ko hamarkadan.
- Egitasmoak gain behera egin zuen 1950eko hamarkadan.
- Ideia hori artearen filosofiari aplikatu zioten filosofoek XX. mendeko berrogeita hamarreko hamarkadan.
- 1980-90 hamarkadan, adibidez, ehiztariak lekuz aldatu zituzten mapatxeak.
- Euskaltegiek batez ere 1990-2000 hamarkadan egindako lan eskergari esker, helduen euskalduntzeak eta alfabetatzeak aldaketa itzela izan zuen.

Okerrak dira, berriz, zenbaki ordinalak halakoetan:

- ✿ *Dirutza zen 25 pezeta 60. hamarkadan.
- ✿ *Egitasmoak gain behera egin zuen 1950.eko hamarkadan.
- ✿ *Egitasmoak gain behera egin zuen 1950. hamarkadan.
- ✿ *Ideia hori artearen filosofiari aplikatu zioten filosofoek XX. mendeko berrogeita hamargarren hamarkadan.

Hamar urteko aldia adierazteko, *urte* hitza ere erabiltzen da, pluralean.

- Gainera, 80ko urteak urte bizi-biziak izan ziren gazte mugimenduaren alorrean.
- Italiarren bitartez heldu zen euskaldunongana tresna hori, 1850-60 urteetan.
- Dena dela, jatorrizko bertsoia, seguruen, Edouard Lemaignerek 1860ko urteetan argitaratu zuena da.

Aste jakin bat zehazteko, honako egitura hauek erabiltzen dira:

- 1944ko otsailaren 20ko astean Manuel Sotari, New Yorken, Estatu Batuetako itsas armadako funtzionario bat hurreratu zitzaion.
- Ikasturtea irailaren 20ko astean hasi zen.
- Hitzarmena, urtarrilaren 7ko astean sinatuko da.
- Zozketa azaroaren 6ko astean egingo da.
- Jardunaldi hori 2008ko azaroaren 2ko astean izango da.